

Animalia hiltzailea

Animalia-hiltzailea



Aurreko aholku batzuetan jorratua dugu nola erabili marratxoa zenbait elkarketa motatan (ikus: [a itsatsia eta hitz elkartuak](#), [giza](#), [euskal...](#)). Oraingo honetan, marratxoak hitz-segidak desanbiguatzen nola lagundu dezakeen ikusiko dugu.

Animalia hiltzailea

Marratxorik erabiltzen ez bada, bi interpre-
tazio ditu hitz-segida horrek. Alde batetik,
izenondotzat har daiteke ‘hiltzaile’; orduan,
animalia izena modifikatuko luke, eta haren
ezaugarri bat adieraziko:

(izena + izenondoa)

Bada animalia bat hiltzailea dena.




EHULKUren aholkua

animalia hiltzailea / animalia-hiltzailea

Animalia hiltzailea

Beste alde batetik, izentzat jo daiteke ‘hiltzaile’. Beraz, *izena+izena* da egitura; hau da, hitz elkartua dugu.

Animaliak hiltzen dituen izakia



Animalia-hiltzailea

Marratxoa baliatuz gero, ordea, interpreta-
zioa bakarra da:

Animalia-hiltzailea = animaliak hiltzen dituen izakia.

(Biak dira izenak eta hitz-elkarketa dugu.)

**Beraz, horrelako hitz-elkarketa bat
erabili behar delarik, okerreko
irakurketa egiteko arriskua saiheste
aldera, marratxoa erabiltzea da
egokiena.**

Beste adibide bat:

- zuzendari laguntzailea
 - zuzendariondokoa
 - zuzendariaren laguntzailea
- zuzendari-laguntzailea
 - zuzendariaren laguntzailea

Hona beste adibide bat:

- proportzio konstantea
 - konstantea den proportzioa
 - (Nolakoa da proportzioa?)
 - proportzioari dagokion konstantea
- proportzio-konstantea
 - proportzioari dagokion konstantea

Eta beste batzuk:

erizain laguntzailea / erizain-laguntzailea

higidura zuzena / higidura-zuzena

indar berreskuratzailea / indar-berreskuratzailea

arku tangentea / arku-tangentea

irakurketa okerra / irakurketa-okerra

abere hiltzailea / abere-hiltzailea

landare haziak / landare-haziak

haur jalea / haur-jalea

Orain arteko adibideetan, marratxorik erabiltzen ez bada, izenondo zein izen gisa joka dezaketen hitzek eragin dezakete nahastea. Zenbaitetan, hala ere, kategoriaz izen soilik diren hitzek, izenondo-funtzioa hartuta, antzeko nahastea eragin dezakete.

- emakume medikua

- mediku den emakumea

- emakumeen medikua

- emakume-medikua

- emakumeen medikua

AHOLKU OROKORRA

Oro har, *izen arrunta* + *izen arrunta* motako elkarketa guztietan izaten da lagungarri marratxoa erabiltzea, eta ez adibideetako hitz-segidak eta horien gisakoak desanbiguatu beharra dagoenean bakarrik. Izan ere, marka tipografiko horren bidez, testuaren irakurleari adierazten diogu marratxoz loturiko bi hitzek unitate bat osatzen dutela eta halakotzat interpreta-tu behar dela.



(Ikus EIMAre [Ortotipografia](#), 61. orrialdea)